

A AUKERATIK ETA B AUKERATIK HAUTA DITZAKEZU GALDERAK, ATAL BAKOITZEAN ADIERAZTEN DEN BEZALA

A aukera

Koronabirusaren izena

- 1 Mikroskopia elektronikoarekin bikain lan egiten zuen June Almeidak. Birusak ikusten eta identifikatzen aritu zen urte asko, eta birus haietako bat koronabirus izenarekin bataiatu zuen 1967an. 53 urte geroago birus horrek hankaz gora jarri du mundua. Bai, hau ez da besteak bezalako birusa, birus berezia da eta. 1
- 5 June Dalziel Hart zen bere benetako izena, baina ezkondu zenetik senarraren abizena hartu zuen; Almeida, hain zuzen ere. 1930eko urriaren 5ean jaio zen Glasgow-n, Eskozian. Etxean baliabide¹ gutxi zituzten, aitaren autobus-gidari soldadak ez baitzuen askorako ematen. Horregatik, Junek 16 urterekin utzi zituen ikasketak, eta lanean hasi zen. Glasgow-ko Unibertsitate Ospitalean lortu zuen lana histopatologiako² teknikari gisa. Ospitale horretan eta Londreskoan ere lan egin zuen, eta urte haietan mikroskopia elektronikoa erabiltzen trebatu zen. 5
- 10 June Almeidak ez zuen unibertsitateko ikasketarik, baina ordura arte egin zuen lanari esker Ontarioko Minbiziaren Institutuan ikerketan aritzeko lanpostua lortu zuen han lanean zegoen lagun bati esker. 1963an mikroskopia elektronikoarekin aritzeko teknika berriak garatzen hasi zen eta zenbait artikuluz zientifiko ere idatzi zituen birusen egiturei buruz. Ezbairik gabe, aditu³ bihurtu zen irudiak aztertzen eta identifikatzen. 10
- 15 Hala, June Almeidaren izena ezaguna egin zen berehala zientzia arloko akademikoen artean. Testuinguru horretan itzuli ziren beren herrira, Ingalaterrara, eta beste ospitale batean hasi zen lanean, Londresko St. Thomas-en. Garai hartan ospitale horretako mediku bat katarro arruntaren inguruko ikerketa egiten ari zen. 15 Nahiz eta birus gehienak identifikatzea lortu, gripearen antzeko birus garrantzitsu bat ezin zuen identifikatu beharrezko baldintzak eta tresnak ez baitzituen.
- 20 June Almeidak azterketa-lan sakona egin eta azkenean, 1967an, birusaren irudi argiak lortu zituen. Ikusi zuena ahalik eta zehaztasun handienarekin deskribatu zuen eta eguzkiaren koroaren antzeko forma zuelako jarri zioten koronabirus izena. 20
- Urtetan eginiko lanak, eta bereziki koronabirusaren inguruan egindako aurkikuntzak ekarri zion saria: egindako ikerketa guztiengatik doktore titulua lortu zuen June Almeidak.

HABE Ikasbil aldizkari digitala (MOLDATUA)

[¹] baliabide: recursos, medios. [²] histopatologia: rama de la ciencia que trata el diagnóstico de enfermedades a través del estudio de los tejidos. [³] aditu: entendida/entendido, experta/experto.

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- **A1. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A1.1., A1.2., A1.3., B1.1., B1.2 eta B1.3)
 - A1.1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *elektronikoarekin* (1), *etxean* (5), *aitaren* (5), *unibertsitateko* (9), *herrira* (14). (1 puntu)
 - A1.2.- Testuinguruan egokia den sinonimo bat eman: *asko* (2), *besteak* (3), *lagun* (10), *garrantzitsu* (16), *tresnak* (17). (1 puntu)
 - A1.3.- Berridatzi mendeko perpaus hauek (1 puntu):
 - “birus berezia da eta” (3): (_____)-(e)lako)
 - “baina ordura arte egin zuen lanari esker” (9): (_____)-iko _____)
 - “Nahiz eta birus gehienak identifikatzea lortu” (16): (_____)ba... ere)
 - “beharrezko baldintzak eta tresnak ez bait zituen” (17): (_____) eta)
 - “Urtetan eginiko lanak” (21): (_____)-dako _____)
- **A2. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A2.1., A2.2., A2.3., B2.1., B2.2. eta B2.3)
 - A2.1. Testuaren ulermena: Zergatik utzi zituen June Almeidak ikasketak 16 urterekin? (1 puntu)
 - A2.2. Testuaren ulermena: Londresko St. Thomas-en lan egiten zuen mediku batek birus gehienak identifikatzea lortu zuen. Zergatik ezin izan zuen koronabirusa identifikatu? (1 puntu)
 - A2.3. Testuaren ulermena: Zer nolako saria ekarri zion Juneri koronabirusaren inguruan egindako aurkikuntzak? (1 puntu)
- **A3. ATALA** (GALDERA 1 AUKERATU BI HAUEN ARTEAN: A3.1 eta B3.1)
 - A3.1. Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A1.1. B1.1. A1.2.
B1.2. A1.3. B1.3.

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A2.1. B2.1. A2.2.
B2.2. A2.3. B2.3.

Galdera 1 aukeratu bi hauen artean

A3.1 B3.1.

B Aukera

Udako oporrak

- 1 Uda, oporrekin, festekin eta aisialdiko ekintzekin lotzen dugu. Abesten dugu, lagunekin egoten gara... Hura iristeko gogoz egoten gara, baina 2021eko uda 2020koaren antzekoa izango ote da? Bada, zoritxarrez, beharbada bai, koronabirusaren pandemiak gure eguneroko martxa aldatu baitu. Segurtasun neurriak beharko ditugu. 1
- 5 Aurtengo uda iazkoarekin konparatuta antzekoa izango da. Itxura hori du behintzat. Bakoitzaren ohituren arabera, gehiago edo gutxiago sumatuko¹ dugu antzekotasuna, baina udarekin lotuta dauden zenbait ekintza edo gertaera antzekoak izango dira; esate baterako, oporretarako asmoak edo udako planak. 5
- Gai horiei buruz inkesta egin dugu. Galdera hauek egin dizkiegu bi laguni:
1. Zein asmo duzu oporretarako?
2. Eguneko planak egitean pandemiak zerbait aldatuko du, esaterako, hondartzara joateko edo?
- 10 IDOIA URZAIZ. Nire izena Idoia da, 26 urte ditut eta tuterarra naiz. Lehenengo galderari erantzunez, bueno, oporrak... uztailen eta abuztuan nik lan egingo dut eta irailean joango gara oporretara. Ez dakigu oraindik nora, mendira edo hondartzara. 10
- Bigarren galderari dagokionez, bai, planak egitean pandemiak eragina izango du. Hondartzara edo mendira joatekotan, nahiz eta leku seguruak izan, segurtasun neurriak hartu beharko ditugu berdin-berdin.
- 15 JOSEBA MONEO. Ni Joseba naiz, 59 urte ditut eta Iruñean bizi naiz. Nire planak oporretarako? Ba, ez dakit. Gure kasuan, adibidez, ez dut uste desberdintasun handirik egongo denik. Gu Errioxako herri txiki batera joaten gara urtero. Iaz ere han egon ginen eta oso ongi. Herrian denok ezagunak gara eta pandemia oraindik dagoen arren, han gehienek txertoa hartu dute. Eta, bueno, gero ikusiko dugu zenbat egunetan gelditu. Bestalde, niri ez zait planak egitea gustatzen, nahiago ditut emazteak eta seme-alabek proposatutakoak. 15
- 20 Bigarren galderari dagokionez, guk oporrak Errioxako herri horretan pasatzen ditugu, eta hango planak antzekoak² izaten dira beti: mendia goizean eta menditik etorri ondoren, arratsaldean, igerilekura. Orduan, nik uste dut antzekoa izango dela, ez bada beste arazorik sortzen koronabirusaren kontuarekin. 20

HABE Ikasbil aldizkari digitala (MOLDATUA)

[¹] *sumatu*: percibir, sentir; darse cuenta, notar. [²] *antzeko*: semejante, parecido/a ("igualtzu").

GALDERAK (OHARRA: Parentesi arteko zenbakiak zein lerrotan dagoen adierazten du)

- **B1. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A1.1., A1.2., A1.3., B1.1., B1.2 eta B1.3)
 - B1.1.- Eman hitz hauen kasua eta numeroa: *lagunekin* (1), *ohituren* (4), *laguni* (7), *herrian* (17), *menditik* (21). (1 puntu)
 - B1.2.- Testuingurua kontuan hartuz hitz hauen sinonimoa eman: *festekin* (1), *abesten* (1), *beharbada* (2), *adibidez* (16), *ongi* (17). (1 puntu)
 - B1.3.- Berridatzi esaldi hauek (1 puntu):
 - “eguneroko martxa aldatu baitu” (3): (_____)-(e)lako)
 - “baina udarekin lotuta dauden zenbait ekintza” (5): (_____-tako _____)
 - “Nahiz eta leku seguruak izan” (14): (_____ arren)
 - “pandemia oraindik dagoen arren” (17): (nahiz eta _____)
 - “emazteak eta seme-alabek proposatutakoak” (19): (_____-rikoak)
- **B2. ATALA** (3 GALDERA AUKERATU HAUEN ARTEAN: A2.1., A2.2., A2.3., B2.1., B2.2. eta B2.3)
 - B2.1. Testuaren ulermena: Noiz joango da oporretara Idoia Urzaiz? (1 puntu)
 - B2.2. Testuaren ulermena: Joseba Moneoren kasuan, iazko oporrekin konparatuta, aldaketa handiak egongo dira? Azaldu zure erantzuna. (1 puntu)
 - B2.3. Testuaren ulermena: Zein da Joseba Moneoren goizeko eta arratsaldeko plana udako oporretan? (1 puntu)
- **A3. ATALA** (GALDERA 1 AUKERATU BI HAUEN ARTEAN: A3.1 eta B3.1)
 - B3.1. Idatzi testuari edota gaiari buruz gutxienez 150 hitz. (4 puntu)

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A1.1. B1.1. A1.2.
B1.2. A1.3. B1.3.

3 galdera aukeratu sei hauen artean

A2.1. B2.1. A2.2.
B2.2. A2.3. B2.3.

Galdera 1 aukeratu bi hauen artean

A3.1 B3.1.